

JESUSEN BIZITZA BERTSOTAN

Mikel Ugalde

Harri eta zur utzi gaitu Auspoak aurten argitaratu duen Salbador Zapirain “Ataño-ren” azken lanak. Bere prosazko lan aberatsen berri bagenekien, kontalari aparta izan zela edo nork egiaztatze aukera izan du dagoeneko. Euskal letretan aurrera egin nahi duen edonorentzat gogoan izan beharreko eredia dela aitortu izan du batek baino gehiagok. Atañoen lan oparoak, hitz lauz hainbat liburu eskaini eta gero, gailurra menderatua zuela uste genuen...Eta orain, hara non Jesusen bizitza kontatuz liburu mardul batekin non agertzen zaigun. Bi mila eta berrehundik gora bertsoekin alajaina!

Aspaldikoa da literatura zaharrea bertsoetan idazteko joera. Guztiok ezagutu ditugu bertsoetan idatzitako dotrinak, santu bizitzak, antzerkiak eta abar. Antonio Zabalak gogorartzen digunez, Sor Justina Aldalur izeneko batek *Ama Birjinaren bizitza* idatzi zuen bertsoetan. Juan Basurkok berak *Jesus (1954)* izeneko liburuxka idatzi zuen bertsoetan. Atañoen lana, ordea, hor geldituko zaigu ahalegin bikain baten lekuko.

Bertsoak idaztearekin batera, kontaketa eskakizunari erantzun nahi dio Atañoek. Arestian esan bezala, kontalari aparta dugu errenteriarra, ahozkotik idatzira zubia erraz eraikitzen duen horietakoa, alegia. Bertso lanari heltzerakoan, ordea, beste erronka bati ekin dio: kontakizuna bertsoetan umotzeari, bertsoetan kontalaritzaren legeari jarraituz moldatzeari, hain zuzen.

Hauxe da liburu honen ezaugarrietako bat: zehaztasuna, zuzentasuna, bizitasuna, erritmoa. Bertsoak lortzen, edertzen, ez du aparteko ahaleginik egingo kontaketa-aren kaltetan. Bertsoen egitura, iruditeria, baliabideak, errimak eta abar norabide beretsutik doaz.

Aparta da bertsoetan elkarrizketak sartzeko erakusten duen maisutasuna. Kontaketa eta elkarrizketak bat egiten dute inongo oztoporik gabe:

Artadun maltzurari eskainitako bertsoan, esaterako, honako hauek kanta daitezke beste zenbaitekin batera:

1088

Nagusiaren zordunak deitu
zitun beregan serio,
lotsarik gabe lenengoari
berela galdetzen dio:
“Zer zor diozu nagusiari?”
“Nik eun kupel olio”
“Exeri lenbailen ta idatzi
berrogeitamar ta kito”.

1089

Bigarrenari galdetu zion:
“Zenbat dezu zure zorra?”
“Nik eun gaitzeru”. “Exeri zaite
larogei jarri ta orra!”.
Nagusi jaunak goratu zuen,
ez zalakoan jatorra,
baña bai bere mundu gauzetan
Izan zalako pizkorra.

Ikus daitekeen bezala, errima kontuan lehen bertsoan bide egokitik zerbait urrunduko bada ere, esan eta kontatu nahi duen hori zehatz agertuko du. Ez al da bikaina, esaterako, bigarren bertsoan elkarrizketan erakusten duen indarra? “Zenbat dezu zure zorra?...Exeri zaite, larogei jarri ta orra!”. Hitz gutxi nahikoa du arazoaren konponbidea adierazteko.

Atañoek gertutik jarraitzen ditu Biblian agertzen zaizkigun irudi eta sinboloak. Artzain ona zela predikatu zuen Jesus artzain gisa ikusten du. Laster hilko zutela ikusten zuelarik, begira hil aurreko egunetan, Jerusalem jauretxean irudikatzen dizkigun giro eta sentipenak:

1.533

Agurtu ditu eriotz-pena
eman dioten etsaiak,
ezagututzen ditu ederki
aien asmo eta naiak.
Ondo badaki laister dirala
illunpearen garaia;
ardi banakak berekin artuz
mendirara jo zun artzaiak.

1534


Azken orduko oroipenetan
gañezka dauka biotza,
bere etsaien eskutan aurki
Il bearra, ai zer lotsa!
Ainbat gorrota dutenengandik
artuko du eriotza,
baña ortikan etorriko dan
uztak dakarkio poza.

Pintatzaile on baten legez, bizi-bizi deskribatzen dizkigu Jesusen bizitzako hainbat pasarte. Lehen esan bezala, labur baina zehatz, sentitu eta ikusten duena hunkitzeraino hurbilaraziko gaituelarik. Merezi du, esate-



Jesusen bizitza

Salbador Zapirain "Ataño"



rako, Jesusen nekaldiko hainbat pasarte arreta handiz eta gozatuz irakurri ala kantatzea. Hona hemen adibide gisa pare bat bertso:

1951

Atera zuten Jesus kanpora
berriro eskal-burutik,
erruki gabe, danen aurrean
artuta zigor-lekutik,
zegon bezela ain lotsagarri
jaurle beraren eskutik,
otxan otxana, beti bezela,
bere burua txut txutik.

1952

Buru gañean arantz-koroia
odola zerrendan gorri,
arpegi eder artatik bera
geldi tantaka erori.
Bizkar gañean trapu zikin bat,
kañabera bat zitori,
erririk erri zebillen gizon
ongille ura al da ori?

Honelakolan eskerga ezin bada aholku on bat eman gabe gelditu. Bertsoan amaiera ongi zaintzen den legez, liburuaren amaieran ere ez du horretarako aukera hori galtzen utziko:

2202

Kristau maitea ikasi dezu
Maisu onaren dotriña?
arek bezela zuk ere egin
erakutsi ta egiña,
ori baidezu ate txikira
bide bakar ta berdiña,
ortik joanaz iritsiko dezu
zerutako atsegiña.

Atañoak, nagusiki, Jesusen bizitzaren berri eman nahi izan digu eta horretarako bertso-moldetara jo du. Ez du, beraz, literaturgintzara jo, nahiz eta edertasunaren xedea zaintzen duen. Egungo gustuak, irakurgaiak, agian bestelakoak dira, baina eginikoa hor dago eta euskal ondarea aberastu egin du behin eta berriro Salvador Zapiain errenteriarak.

Bihoakio gure esker ona egileari eta, nola ez?, lan hau kaleratzen hainbesteko lana burutu duen Antonio Zavalari.